

GALERNA

Errepika:

Ixiltasun haundi bat kanpoan...

Zer gertatuko da ?

Gure xakurra saingaka hasi da ;
leihora banao.

Zerua kolpez goibeldu
ta euria heldu¹, oi galerna²!
Ximistek zehar-zeharka
argitu dute mendia.

Errepika.

Beharriek entzun dute
idurtzuria³: krask, oi galerna !
Haizea zirimolaka
ta ba(ra)zuz⁴ ari joka.

¹ heldu : horra, dator

² galerna : hodeia, tenpesta, ekaitza

³ idurtzuria : ortzantza, trumoi, durunda

⁴ ba(ra)zuz : txingorra, kaskabarra, zitzerra

i-zil-ta-sun haundi bat kan-po-an zer gert-a-tu-ko da gu-re xa-ku-ra saing-a-ka ha-si da lei-ho-ra ba-no-a

Ze-ru-a kol-pz goi-bel-du ta eur-i-a hel-du oi ga-ler-na xi-mistek zehar zehar-ka ar-gi-tu dute men-di-a .

HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
<p>IRUDITU, SENDITU, SORTU.</p> <p>Doinu zail bat landu.</p> <p>Ingurumen harrabotsdun bat sortu.</p> <p>Zuzentasuna landu.</p> <p>Ihurtzuria entzun eta imitatu ondoan, kantua imitazioz landu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen iharduerean eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik. ◆ Musika talde-iharduerean parte hartu. ◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. ◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatu bidez. ◆ Soinuen munduari adi izan ; soinu zenbaiten ezaugarriak bereizi eta ezagutu. ◆ Soinu egite et entzute ihardueren arteko harremanari ohartu. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu. ◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. ◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere. ◆ Bere burua denbora hurbilean kokatu eta hasi kronologiari ohartzen. ◆ Denboraren eta espazioaren markak adierazi. ◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz. ◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. ◆ Egitasmo batean parte hartu, helburua ezaguturik. ◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.
<p>MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU.</p> <p>Lexikoa ikasi.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. ◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. ◆ Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan. ◆ Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili. ◆ Ikasi hiztegia beste egoera batzuetan baliatu. 	
<p>ELGARREKIN BIZI.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu. 	

USTIAPENA (egin moldea)

ARIKETA ZENBAIT :

- Ihurtzuriak gorputzean sortzen duen dardara antzeztu gorputzez (hotz ikararen gisan, adibidez).
- Haur batek bestearen bizkarra erhiekin hunkituz elementu atmosferikoak (adibidez ximista) sendiarazten dizkio.
- Ihurtzuria eta galerna bezalako harrabotsa/azantza/zarata egiten duten tresnak asmatu.

KARTA JOKOA :

- Zortzi karta doazkizu hurrengo orrian mozteko : euria, elurra, haizea, barazuza/txingorra/kaskabarra/zitzerra, eguzkia, ximixta, hedoa /hodeia, ortzadarra.
- Galerna egoerari doazkion kartak multzo batean bildu eta besteak (eguzkia, elurra) kanpo utzi.
- Karta berak har eta galernari ez doazkion elementu bat sar.

☺ Karta jokoan diren marrazkiak margo itzazu.

Osatzeko :

- **entzun** galernaren soinuaren grabaketa : *J'écoute les sons de la Nature* KDa. Nashvert Production.
- **ikus** *Hitzak jostailu*, 50. or., J. Ormazabal. Elkar.



